

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

1 positibo berri

2.314 positibo guztira*

zehaztu gabe hildako

2 hildako EAEn

NAFARROAN

69 positibo berri

9.088 positibo guztira

1 hildako

73 ospitalizatuta

*Hernanin 60 Astigarragan 20

Sendatuak: 17.895 EAEn; 5.251 Naf.

Xabi Solanoren kontzertua eskainiko da gaur Hernani Kultura online ekimenaren barruan

Maiatzeko programazioa itxiko da gaur eta 19:30etan hasiko da Hernaniko Udalak YouTube-n duen kanalean. Ekaineko lehenengo astean ipuin kontaketa eta antzerkia egongo dira asteazken eta ostiralean.

HERNANI KULTURA

Andoni Tolosa *Morau* artistaren emanaldia ikusi ahal izan zen asteazkenean Hernani Kulturak maiatzerako prestatutako online programazioaren barruan eta maiatza amaitzeko ikuskizun potoloa dago iragarrita. Xabi Solano musikariak kontzertua eskainiko du gaur, arratsaldeko 19:30etan hasita.

Hau ikusteko, ohi bezala, Hernaniko Udalak YouTubean daukan kanalean sartu beharko da, 19:30etan, eta bideoa bilatu. Kronikak ere, albiste honetan bertan txertatu du bideoa, www.kronika.eus webgunean, emanaldia topatzea errazteko asmoz.

Solano hernaniarrak aben-

duan aurkeztu zuen *Bi*, bakarka grabatu duen bigarren diskoa. *Bi* diskok osatzen dute *Bi*: bata abesti berriekin osatutakoa da, eta bestea, bertsioekin. Gaurko emanaldian disko horretan entzun daitezkeen abesti desberdinak entzun ahal izango dira, abesti berriak eta zaharragoak.

Ekainean jarraituko dute saioak bost emanaldirekin

Xabi Solanok gaur eskainiko duena maiatzeko azkena izan arren, ekainean oraindik ere jarraipena izango du Hernani Kultura online ekimenak.

Kulturaz gozatzeko aukera eman nahi izan du Udalak ekimen honekin. Maiatzean jarri zen martxan online programazioa, eta ordutik, ipuin saioak,



Xabi Solano eta Jon Garmendia 'Txuria' elkarlanean aritu dira konfinamenduan.

literaturari buruzkoak, musika emanaldiak, dantza emanaldiak... ikusi ahal izan dira asteazken eta ostiraleroko.

Ekainean ere beste horrenbeste izango da. Hasteko, ekainaren 3an, asteazkenean, Beatriz Egizabal eta Kontukan-toirekin ipuin orduaz gozatu ahal izango da, 18:00etan.

Ekainaren 5ean, ostiralean, berriz, Vito Rogado aktorearen antzerki emanaldia izango da, 19:30etan.

Ekainaren 10ean, 18:00etan, bertsolaritzaren txanda izango da: Eñaut eta Unai Agirre anaiekin *Berto zahar eta berriak, auskalo zeinek eginak* emanaldia eskainiko dute.

Ekainaren 12an, bestalde, Nagore Legarreta argazkilaria- ren erakusketa ikusi ahal izango da arratsaldeko 19:30etatik aurrera.

Eta online programazioari bukaera emateko, ekainaren 19an Ainhoa Larrañaga musikariaren emanaldia izango da 19:30etan. **K**

Ekainaren 15era arteko epea dago, Santa Ana eguneko edalontzietarako irudi lehiaketan parte hartzeko

400 euro eta produktu gastronomikoen lotea jasoko ditu irabazleak. Proposamenak bidali behar dira 'info@sagardun.com' helbidera.

ASTIGARRAGA SAGARDOAREN LURRALDEA

Santa Ana egunak, uztailaren 26an ospatzen denak, 45 urte beteko ditu aurten, eta hori horrela, Sagardoaren Lurraldeak lehiaketa antolatu du: Santa Ana eguneko Sagardo Eguneko edalontzietan serigrafiatuko den irudia aukeratzeko lehiaketa, hain zuzen ere.

Parte hartzea irekita dago, eta ekainaren 15era arte bidali daitezke proposamenak, info@sagardun.com helbide elektronikora.

Irabazleak, 400 euro eta produktu gastronomikoen lotea jasoko ditu, sari.

Erakusketa ere bai

Oinarrietan zehaztutakoaren

arabera, gaia, 'Astigarraga, Santa Ana eguna 2020 Sagardo Dastaketa 45. edizioa' izango da, eta parte-hartzaile bakoitzak lan original bat aurkeztu ahal izango du, teknika digitala erabilita. Marrazkiaren ezaugarriak hauek izan behar dira: 15zm x 6zm tamainakoa, antolatzailearen logotipoa sartzeko lekua utzita; txuri beltzekoa, grisik erabili gabe eta Bitmap formatukoa; 300 DPI erresoluziokoa; eta marrarik erabiliz gero, gutxienez 1mm edo 11 pixeleko zabalera duena.


Marrazkia digitalean eta PDF formatuan aurkeztu behar da, sinadurarik gabe, ekainaren 15a baino lehen, info@sagardun.com helbidean. Bertara marrazkia bidaltzean, emailean adieraziko dira egilearen izena, abizena, helbidea, herria eta telefonoa.

Epaimahaia Sagardun Partzuergoak, ilustratzaile profesional batek eta Astigarragako Udalak osatuko dute, eta hartzen duten erabakia ezingo da aldatu.

Lanak Sagardoaren Lurraldeko sare sozialetan argitaratuko

dira, eta lanik onena zein den asmatu ahal izango dute herri-tarrek. Asmatzen dutenen artean zozketa bat jarriko da martxan. Horrez gain, marrazki onena aukeratu ondoren, erakusketa egingo da aurkeztutako lanekin Sagardoetxean, ekainaren 26tik uztailaren 26ra arte.

Guztiarekin, marraztea gustuko duten guztiak parte hartzera animatu ditu Sagardoaren Lurraldeak. Gogorazi du irekia dela, edonork hartu dezakeela parte. **K**



GAUR Udako eguraldiak jarraipena izango du. Tenperatura berriz ere 28-30 °C-ra igoko da, baina kostaldean goizean bertan ipar-haizea sartuko da eta maximoak ez dira hain altuak izango. **Min.16° / Max.26°**

BIHAR Berriz ere eguzkia izango da jaun eta jabe eta bero egingo du. Zerua, orokorrean, oskarbi egongo da. Haizeak hego-ekialdetik joko du eta arratsaldean brisa sartuko da kostaldean. **Min.15° / Max.27°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LAGUNTZAILEAK
Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Euzko Legebiltzaria
Goiatzeko Udala
Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK
Euzko Legebiltzaria
Goiatzeko Foru Aldundia
Euzko Legebiltzaria

Udalekuen garrantzia aldarrikatu eta irizpideak bildu ditu OinHerrik

«Denon artean udaldi zoragarri bat prestatzeko» gai izatea aldarrikatu du sareak, haurtzaroa goraiatuz.

URUMEA OINHERRI

«Udaldian udalekuak ez egiteko gomendioak bat-batean harra-patu gaitu», azaldu du OinHerri, Herri Hezitzaile sareak. «Haur eta nerabeak bizitzen ari diren egoerak kezkatu» egiten ditu, eta «kasu guztietarako erabaki bakarra eta bera hartzea ez dela zuzena» uste du.

Horregatik, tokian tokiko erabakiak eta neurriak proposatu nahi izan ditu, aisialdi hezitzailea, «balioetan eta zaintzan oinarritutako heziketa eta zaintza gunea» ardatz hartuta. Zentzu horretan, «ohiko udalekurik ezean, alternatibak eskaintze-ra» datozela jakinarazi dute.

Ekintzak, auzogune eta herrika

«Udaldian ekintza anitzak eskaintzea inoiz baino beharrezkoagoa dela defendatzen dugu, haur eta nerabeek herriarekin harremana berreskuratzeko», azaldu du, eta beraz, irizpideak argitaratu ditu, ekintza eskaintza anitza osatzeko, «aisialdi zein elkartegintzan adituak eta arituak diren herritar eta profesionalekin batera eratuak izan beharko dutenak». Horren aurretik, beldurretik elkar zaintzara pasatzeko mezu posi-



Pasa den urteko udaleku irekiak Plaza Berrin.

tiboak sortu eta eskola garaitik uda garaira pasatzeko pausoak eman behar direla ere aldarrikatu du; hala nola, emozioak landu, errefortzu akademikoa antolatu eta udaldiari buruzko informazioa eman.

Zehazki udarari begira, berriz, batetik, ekintzak antolatze-ko eragile, udal eta familien arteko koordinazio gunea sortu, herri edo auzogune bakoitzeko espazio egokiak identifikatu eta tokian tokiko behar eta baliabideetara egokitutako ekintzak prestatzea gomendatu du.

Ekintza horiek prestatzeko, berriz, ondorengo gomendioak egin ditu: gertutasunaren araberako taldeak osatzea, horiek espazio konkretuetan kokatzea, herriko hezkuntza ez formal eta kirol edo kultur eragileekin sare osatu eta ekintza eskaintza antolatzea, kale eskaintza eta

euria egiten duenerako eskaintza antolatzea eta antolatutako ekintza hauez gain, familian eta etxean nahiz kalean egin ditzaketen ekintzak proposatzea.

Segurtasun neurriez gain, zaintza

Ezarritako segurtasun neurriez gain, bestalde, elkar zaintza neurriak aldarrikatu ditu sareak. Batetik, komunitatearen garrantzia gogora ekarri dute, «herriko espazioetan haur eta nerabeek lehentasuna izateko».

Era berean, gogorarazi dute garrantzitsua dela familia, hezitzaile eta herritarren arteko koordinazioa, zainketa emozionala egitea, aniztasun funtzionala eta egoera zaurgarrian dauden familiak kontuan hartzea eta hezitzaileentzako ere babes neurriak lantzea, aurrerantzean. **K**

Gudarien Plazan borobilean bilduko dira

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

«Espetxe barruko egoera oso gogorra izan da eta da oraindik, bai COVID-19ak barruko egoeran nola kaltetuko zituen gure preso senideek ez jakiteak eta bisitatze aukerarik ez izanak». Egoera honetan gaur, 20:00etan, kontzentrazioa burutuko dute Gudarien Plazan. Segurtasun neurriak hartuko dituzte eta kontzentrazioa borobilean izango da plazan zehar bi metroko distantzia mantenduz, maskarilak eraman eta banderola edo pankarta hartzeko guanteak ere behar dira. Aldarrikapena egoki eta ikusgarria egiteko bakoitzak bere banderola eramatea proposatu dute.

Kontzentrazioa bueltan da gaur

ASTIGARRAGA PRESO ETA IHESLARIAK

Azken bi hilabeteetan bertan behera utzi eta gero, gaur hilak 29, 20:00etan Joseba Barandiaran plazan, kontzentrazioa burutuko da euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzearen alde.

Bidesariak ordaintzeko Abiatu 2.0, eskura

ASTIGARRAGA-HERNANI ALDUNDIA

Bidegik atzo ireki zuten Aritzetako bezeroentzako arreta zentroa, Abiatu 2.0 gailu berriak jaso ahal izateko. Bidesari edo peajeentzako teleordainketarako tresna berria da, eta eskaera egin zutenek, atzotik aurrera jaso ditzakete. Baina hitzordua hartu behar da www.bidegi.eus webgunean edo 943 105 106 telefonoan. Gailua posta bidez jasotzeko eskaera egin zutenek, berriz, laster jasoko dute Correosen jakinarazpena.

Peña Otaño elkarte gaur irekiko da

HERNANI ELKARTEA

Martxoan atek itxi eta gero Peña Otaño elkarteak gaur irekiko ditu atek eta aktibitatea berreskuratuko du. Afaritarako zabalduko da, beraz arratsalde aldera bueltatuko da normaltasun berrira.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzan duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ENCARNACIÓN IBÁÑEZ LÓPEZ

(Ikastetxeko irakaslea den Jokin Cabelloren ama)



Bizitzen ari garen ezohiko egoera honetan, inoiz baino gehiago, Jokin gure agurrik beroena.

HERNANI BHI INSTITUTUKO IRAKASLE, IKASLE, GURASO ETA LANGILE EZ IRAKASLEAK

Hernanin, 2020ko maiatzaren 29an



VII. URTEURRENA Iñaki Lete Aduriz

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu.



LAURA, ANA ETA VICENTE, IÑAKI ETA ANA, AMAIA, LAURA ETA NORA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 29an

JASOTA BEZALA

gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizenak, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaiak ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Euskal Preso Politikoaren aldarrikapenarekin bat

Idatzi hau sinatzen dugunok, Euskal Preso Politikoaren aldarrikapenarekin bat egiten dugu eta gure kezka adierazi nahi dugu momentu honetan pairatzen ari diren egoerarengatik. Espetxe politika anker eta hiltzailearekin amaitzeko, guztion lana beharrezkoa da.

Julen Atxurra "Pototo"ren egoera, zein Patxi hartu duen erabakiaren atzean, Euskal Preso Politikoek urte luzez jasandako tortura eta ankerkeria dago. Euskal Presoak suntsitzeko diseinatutako estrategia penitentziarioak, kalte fisiko zein mental larriak eragiten ditu hau pairatzen du-

tenengan. Kartzela barrutik zein gertutik ezagutzen duen edonork daki, presoaren egoera zeinen gogorra den eta zein ondorio larriak eragiten dituen. Baina badaki ere, elkartasuna eta konponbidearen norabidean urratsak ematea dela denak etxera ekartzeko dugun tresnarik eraginkorrena. Gatibu denari, elkartasun keinu txikiak ere hauspoa ematen dio, aurrera egiten laguntzen dio. Dena galdutzat eman beharrean, aurrera jarraitzeko, ez etsitzeko eta borrokan jarraitzeko behar beharrezkoa den botika da elkartasuna. Euskal Presoek gure beharra dute, ez dezagun inor bazterrean

utzi. Euskal Preso Politikoaren borrokek gure herrian islada izan behar dute, ez ditugu bakarrik utziko.

Euskal preso politikoaren aldeko mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu.

Euskal Presoak Etxera!!!

Ekaitz Telleria Aldaregia, Pakito Lujanbio, Ekhi Oñate, Txemari Aranburu, Asier Olano, Juan Mari Olano, Egoitz Balerdi, Aitzol Arrieta, Ugaitz Errazkin, Iñigo Alzelai, Anjel Pikabea, Jon Ezeiza, Kinito, Roxario Pikabea, Kamatxo, Imanol Gorrotxategi 'Popo' eta Iñaki Gurrutxaga.

IRAGARKI MERKEAK

Kotxe txiki bat eta garajea salgai. Kotxea Picanto Kia, urte bateko garantiarekin.

Deitu: 651 188 007

Emakumea lan bila: ebeko lanak egiteko, aitona-amonak zaindu, goizez eta arratsaldez.

Deitu 602 04 98 90

Sukaldari bila gabiltza Hernaniko jatetxe batean, esperientzia daukana. **Deitu: 943 55 64 81**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**